Ulermena 2

Ur gazizko istorio bat



Alexandro Handiaren ametsa Persia osoa konkistatzea zen, eta bertatik igarota, Indiaraino heltzea, eta hura ere konkistatzea.

Lehen eginkizuna burutzen ari zela (hau da, Persia konkistatu), behinola bere armadarekin ur-eremu handi bat hasten zen lekuraino heldu zen. Indiako Ozeanoa zelakoan, eta bertara menturatuz gero Indiara iritsiko zela pentsatuta, zuhaitzak mozteko eta itsasontziak eraikitzeko agindu zuen.

Handik hilabetera prest egon ziren itsasontziak. Beraz, denbora gehiago galdu gabe, ur gezaz eta jakiz bete zituzten sotoak, eta itsasoratu egin ziren.
Alexandroren agindua kostaldetik gertu nabigatzea izan zen, behar izanez gero bizigaiak eskuratu ahal izateko.

Bi hilabetez egon ziren horrela, lehorra begien bistatik galdu gabe, harik eta goiz batean, bi hilabete lehenago Indiarako bidean utzi zuten kostalde zati berbera ikusi zuten arte. Hura ezustekoa! Jakin gabe, Kaspiar itsasoan barrena ibiliak ziren Alexandro eta haren soldaduak. Izan ere, Kaspiar itsatsoa itsasoa bakarturik gelditu zen antzina, hondamendi handiren bat zela kausa ziurrenik, eta aintzira gazi handi bilakatu zen.

Sasoi hartan papera asmatu gabe zegoen artean, eta mapak ez ziren gaur beste erabiltzen. Ezbairik gabe, Alexandro Handiak lurraldearen mapa esku artean izan balu, ez zuen abentura xelebretan denbora alferrik galduko.

liveworksheets.com

Markatu aukera zuzena kasu bakoitzean.

- Alexandro Handiak
- Alexandro Handia
- Itsas bidaiak,
- Alexandro Handia

Bilatu testuan hitz hauen antonimoak eta idatzi.

- inoiz ez:
- hasi:
- gazi:
- duela gutxi:
- lehor:
- arrunt:

Zikinetan zikinenak

«Urez garbitzea kaltegarria da ikusmenerako; hortzetako gaixotasunak eragiten ditu, bai eta kata rroak ere; eta aurpegia zurbildu egiten du». Horixe zioen XVII. mendean Basilea hirian osasungintza sustatzeko gomendioak biltzen zituen idazki batek.

Gaur egun ahoa bete hortz geratuko ginateke sendagileak horrelako aholkuak emango balizkigu, ongi baino hobeto baitakigu egunero dutxatzea, hortzak jatordu guztien ondoren garbitzea eta higiene-aztura egokiak izatea ezinbestekoa dela osasuntsu egoteko.

XVI. mendeko medikuen ustetan, alabaina, urak, batez ere bero egonez gero, organoak ahuldu egiten zituen eta gorputza aire kaltegarrien mende uzten zuen, ahul egonik, aireok poroetatik sartu eta era guztietako gaitzak eragiten zituztelako. Areago, uste zuten zikinkeria-geruza on bat gaixotasunen kontrako erremediorik eraginkorrena zela.

liveworksheets.com

Hori horrela izanik, bainuontzia traste zaharrak gordetzeko erabiltzen zuten sasoi hartan, eta bere berezko funtzioa urtean behin baino ez zuen betetzen, bitan gehienez ere.
XVIII. mendean, nobleek eta jende dirudunak hauts zuriz estaltzen zituzten tximak, urez eta xaboiz garbitu beharrean; eta nahiz eta bainatu ez, alkandora sarritan aldatzeko ohitura zuten. Hori bai, alkandorak ahalik zurienak izan
behar zuen, garbi-garbia eta lurrindua, gorputzeko zikinkeria kenduko zielakoan. Penak kolkoan gordeta zeuzkaten, ordea, alkandora sarri askotan aldatzen zutenek ere, barruko arropak –janzteko ohitura izanez gero– hilean
behin baino ez zituzten aldatzen-eta.

Ordenatu zenbaki bidez esaldi hauek denboraren hurrenkeran.

Arropa garbiak gorputzeko zikinkeria kentzen zuelakoan, sarritan aldatzen zuten kanpokoa.

Higieneari garrantzi handia ematen zaio, osasungarria baita.

Urez ez garbitzea gomendatzen zuten, osasunean kalteak eragiten zituelakoan.

Gorputza zikin izatea gomendatzen zuten, azaleko poroak estaltzeko eta ez gaixotzeko.

Aukeratu esapide bakoitzaren esanahia.

ahoa bete hortz geratu

erabat txundituta geratu

barreari ezin eutsiz geratu

penak kolkoan gordeta eduki

kanpotik itxura ona izan eta barrutik gaizki egon

depresio handia izan

liveworksheets.com

Bilatu irakurgaian hitz hauen sinonimoak eta lotu antonimoekin.

• lohikeria	•	• kirastu
• sendo	•	• mesedegarri
• makaldu	•	• sendotu
• urrineztatu	•	• gaixo
• txar	•	• garbitasun

liveworksheets.com